

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak dohaintza gisa jaso du Zubietan bizi den Juan Ignacio Paul Arzak donostiarraren liburutegi pribatua

*Historia, filosofia, politika, soziologia, antropologia, etnografia edo ekonomia bezalako gaietarako buruzko 1.600 liburuki baino gehiagok osatzen dute*

Lunes, 16 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuak Zubietan bizi den Juan Ignacio Paul Arzak donostiarraren liburutegi pribatua jaso du dohaintzan. Bidasoa Ikerketa Zentroari lotutako ikertzailea da bera. Liburutegia 1.600 alek baino gehiagok osatzen dute; azken hamarkadetan egindako ikerketa-lanen emaitza da.

Aleen gaiak eta edukiak direla-eta, oso bilduma bibliografiko interesgarria da, eta jabeak bizitzako hainbat etapatan izan dituen gustuen eta zaletasunen isla da. Liburuen bilduma osatua da bilketa-lan handia egin delako, eta lan hori ezinbestekoa izan da jabearen prestakuntza intelektuala aberasteko, sorginkeriarri eta euskal landa-bizitzari buruzko ikerketak egiteko eta irakasle gisa izan zuen lanbidean aritzeko.

Dohaintzan emandako liburuen gai nagusiak, ale kopuruan oinarritutako garrantzia hurrenkera gisa ezarrita, historia, filosofia, politika, soziologia, antropologia, etnografia eta ekonomia dira. Gehienak estatuan argitaratutakoak dira, baina badaude Argentina, Mexiko, Kuba, Guatemala, Brasil eta Venezuela bezalako herrialde latinoamerikarretan argitaratutako aleak ere. Era berean, gaztelaniazko liburuak dira gehienak, baina euskarazkoak ere asko dira, baita, frantsesez, katalanez, italieraz eta polonieraz argitaratutakoak ere.

Bilduma bibliografikoa Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren parte izango da hemendik aurrera, eta instituzio horrek babestuko du. Une honetan aleak katalogatzeko lanak hasiak dituzte, ikertzaileen esku ahalik azkarren jarri ahal izateko.